

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1823

AGINDUA, 2012ko martxoaren 28koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Ekonomia eta Ogasun Sailaren datu pertsonalen fitxategiak arautzeko dena.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua dioenez, Estatuko Aldizkari Ofizialean edo kasuan kasuko egunkari ofizialean argitaratutako xedapen orokorraren bidez bakarrik sortu, eraldatu edo ezaba daitezke datu pertsonalak dituzten herri-administrazioetako fitxategiak. Artikulu horretan, eta berau garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54. artikuluan, ezarrita dago ebazpen horren oinarritzko edukia.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikulua bidez, Datuak Babesteko Erregistroa eratu zen, eta bertan ezartzen denez, legearen aplikazio-eremuan dauden fitxategiak inskribatuko dira.

2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko egindako eragiketen berri emango diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioa egiteko; horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2005eko uztailaren 21eko Ebazpenaren bitartez onetsitako eredu normalizatua erabiliz, xedapena edo erabakia bidali beharko da.

Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Aginduaren bidez, aipatutako lehendakariordetzaren eta sailaren datu pertsonalen fitxategiak arautu ziren, bai eta beren erakunde autonomiadunenak ere. Gerora, agindu horrek zenbait aldaketa izan ditu, besteak beste, eta gaur egungo Ekonomia eta Ogasun Sailari dagokionez, Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2006ko ekainaren 27ko Aginduaren bidez. Harrezkero denbora dezente joan denez, arauketa-moldea eguneratu beharra ikusten da, fitxategi batzuk aldatuz eta fitxategi berriak sortuz, jarduera berrien ondoriozkoak diren fitxategiak alegia. Bestalde, arauketa-moldea egokitu beharra dago bi dekretu hauek egituretan eragindako aldaketeetara: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua; eta bestetik, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituen otsailaren 20ko 568/2009 Dekretua.

Beraz, aipatutako arauetan ezarritakoa bete nahirik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Gaia.

1.– Ekonomia eta Ogasun Sailak kudeatutako datu pertsonalen fitxategiak arautzea da agindu honen helburua. Fitxategi horiek agindu honen 1. eranskinean azaltzen dira, eta kasu bakoitzean agertzen dira Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikulua eskatzen dituen edukiak. Lege hori garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.1 artikulua garatu zuen 20.2 artikulua hori.

2.– Aurreko zerrendatik, datu pertsonalen fitxategiak sortzen dira, II. eranskinean azaltzen direnak.

3.– Izaera pertsonaleko datuak babestari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 27ko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.2 artikulua betez, III. eranskinean azaltzen dira honako bi agindu hauetan xedatutakoarekiko aldatu direnak: batetik, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta sail horri atxikitako erakunde autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak arautzen dituen Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Agindua; eta bestetik, Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko ekainaren 27ko Agindua, aurreko agindua bigarren aldiz aldatzeko dena.

2. artikulua.– Datuak lagatzea.

1.– I. eranskinean fitxategi bakoitzerako aurreikusitako datu-lagapenari kalterik egin gabe, fitxategietako datuak laga ahal izango dira, Herri Administrazioaren esparruan, lege-ordenamenduak agintzen dituen funtzioak betetzeko, baldin eta eskumen berdinak erabiltzeko badira edo gai bereberari buruzkoak badira.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko eta beste administrazio publiko batzuetako estatistika-organo eta –zerbitzuei laga ahal izango zaizkie, kontuan edukiz Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean ezartzen dena.

3.– Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikuluekin bat etorritik, aipatutako datuak Herriaren defendatzaileari, Fiskaltzari, epaileei, epaitegiei eta Kontu Auzitegiari laga ahal izango zaizkie, dituzten egitekoak betez.

3. artikulua.– Segurtasun-neurriak eta kudeaketa.

Fitxategi bakoitzaren organo arduradunen titularrek hartu beharreko neurriak hartuko dituzte, fitxategi horiek sortuak izan ziren helburuetarako erabiliko direla bermatzeko, eta datu pertsonalen segurtasunerako. Horrela, fitxategiak aldatu, galdu eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzea eragotziko da. Bestetik, 15/1999 Lege Organikoan eta berau garatzeko arauetan aitortutako bermeak, betebeharrak eta eskubideak gauzatzeko hartu beharreko neurriak ere hartuko dituzte.

4. artikulua.– Datu-tratamendurako zerbitzua ematea.

Datu-tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideak kontuan hartu beharko dituzte Ekonomia eta Ogasun Sailaren kontura datu pertsonalen tratamendurako zerbitzua ematen dutenek, eta jarraibide horien arabera jardungo dute. Hala egingo dutela jasoko da zerbitzua eskaintzeko egiten den kontratuan. Beraz, alde batetik, datuak ezin izango dira beste ezertarako

aplikatu edo erabili, eta bestetik, ezin izango zaio inori haien berri eman, nahiz eta asmoa datuak gordetzea izan; izan ere, hala agintzen du 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikulua.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geldituko dira agindu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak, eta bereziki honako fitxategi hauek: Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Aginduaren I. eranskinean jasotakoak, baldin eta fitxategi horiek gaur egun Ekonomia eta Ogasun Sailaren eskumeneko jarduera-eremuei buruzkoak badira.

Indargabetuta geldituko da, orobat, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2004ko urtarrilaren 8ko Aginduaren 1. eranskinaren 10. fitxategia (agindu haren bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailean eta hari atxikitako erakunde autonomoetan dauden izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak arautzen dira).

AZKEN XEDAPENENAK

Lehenengoa.– Ekonomia eta Ogasun Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak agindu honen kopia bat helaraziko dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Ekonomia eta Ogasun Sailaren datu pertsonalen fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan erregistra ditzaten, horretarako ezarritako prozedura erabilia.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 28a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

I. ERANSKINA

EKONOMIA ETA OGASUN SAILAREN DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK

1.– Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

1.1.– Ekonomiari buruzko argitalpenen banaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Ekonomiari buruzko argitalpenen banaketaren kudeaketa eta kontrola harpidedunen eta interesatuta dauden erakundeen esku uztea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Zein pertsonari bidaltzen zaion ekonomiari buruzko informazioa eta argitalpenak, eta nortzuk diren argitalpen horien kolaboratzaileak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Interesatuta dauden pertsonak, sarbide publikorako iturriak (lanbide-zerrendak).

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak edo kupoiak, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Datu komertzialak.

Transakzioen datuak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

1.2.– Ekonomiari buruzko argitalpenen kolaboratzaileak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Ekonomiari buruzko argitalpenen kolaboratzaileen erregistroa eta ordainketa-kudeaketa.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Argitalpenen kolaboratzaileak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Ekonomia- eta finantza-datuak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

1.3.– FEDER fondoak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

FEDER finantzaketa duten EAEko kudeaketa-organoen exekuzioen kudeaketa-espeditteei eta kontularitza– eta aurrekontu-datuei buruzko informazioa erregistratzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuetako onuradunak eta kontratistak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Administrazio publikoak.

Datuak jasotzeko prozedura: Datuen igorpen elektronikoa, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak.

e) Datuen lagapenak.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

1.4.– Ekonomia arloko ekimenei zabalkundea ematea.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

EAEren jarduera ekonomikoarekin zerikusia duten jardueri eta proiektuei zabalkundea ematea helburutzat duten ekimenak kudeatzea, bai eta herritarrek arlo horietan duten parte-hartzea sustatzea ere.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Herritarrak, oro har.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: Datuen igorpen elektronikoa, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

1.5.– Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren espedienteak kudeatzea.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Lehiaren defentsari buruzko arau-hausteen gaineko salaketak kudeatzea eta espedienteak bideratzea. Zehapen-espedienteen tramiteak sistematizatea, eta parte hartzen duten alderdien eta ikertzen ari den gaian garrantzi handia duten hirugarrenen datuak biltzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Interesatuak edo beren legezko ordezkaria, beste herri-administrazio batzuk eta erakunde pribatuak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Salatzailleak, alderdiak eta instrukzioan parte hartzen duten hirugarrenak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inkestak, elkarrizketak eta inprimakiak Datuen igorpen elektronikoa, Internet.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

Inguruabar sozialak ezagutzeko datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Datu komertzialak.

Transakzioei buruzko datuak.

Arau-hausteei buruzko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Lehiaren Estatuko Batzordea.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Ertaina.

2.– Aurrekontu Zuzendaritza.

2.1.– Aurrekontuaren I. kapitulua.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Langileen Gastuei buruzko I. Kapituluaren aurrekontua prestatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari atxikitako langileak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Administrazio publikoak.

Datuak jasotzeko prozedura: Datuen igorpen elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta aseguruak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Aurrekontu Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Aurrekontu Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

3.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

3.1.– Endosuak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Kreditu-lagapenak erraztea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Zehaztutako dokumentuak aurkezten dituztenak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: Aurkeztutako dokumentuak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

3.2.– Europako Fondoak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Eusko Jaurlaritzak edota EAEko foru– edo toki-erakundeek kudeatutako edo garatutako egitura-fondoan kontura Europako Erkidegoak finantzatzeko eragiketei buruzko informazioa eskuratzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

EAEaren eremuko egitura-fondoak jaso dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Herri-administrazioak (Eusko Jaurlaritzaren eta foru- nahiz toki-erakundeen kudeaketa-organoak eta aurrekontu-kontularitza).

Datuak jasotzeko prozedura: datuen igorpen elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

3.3.– Informaziorako eta kudeaketa ekonomiko eta kontularitza-kudeaketarako sistema.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Aitortutako eskubideen, aktibo finantzarioen, sarrerren, gastu-konpromisoen, ordainketa-obligazioen eta hirugarrenei egindako ordainketen kontabilitate-erregistroa egitea, bai eta ordainketak egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko zerga-obligazioak betetzea ere.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zordunak eta hartzekodunak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria Interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak, aplikazio informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta aseguruak.

Transakzioen datuak.

Arau-hausteen inguruko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Foru-ogasunei eta Estatuko Zerga Agentziari.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Ertaina.

4.– Osakidetzan kontu hartzea.

4.1.– Osakidetzaren nominetan kontu hartzea.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Osakidetzako langileen izendapen eta ordainsariei buruzko legezkotasun-txostenen kontu-hartzea egitea, kontrolatzea eta ematea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Osakidetzako langileak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Beste herri-administrazio batzuk.

Datuak jasotzeko prozedura: datuen igorpen elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Lanpostuari buruzko xehetasunak.

Ekonomia- eta finantza-datuak.

e) Datuen lagapenak.

Osakidetza.

Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

Eusko Legebiltzarra.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Osakidetzan kontu hartzea.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Osakidetzan kontu hartzea.

Araba kalea 45.

Vitoria-Gasteiz 01006.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

4.2.– Osakidetzaren esleipendunen kontu hartzea.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Osakidetzaren lizitazio- eta kontratazio-espedienteen legezkotasuna kontu hartzea eta kontrolatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Osakidetzaren kontratazio-espedienteetan dauden pertsona fisikoak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Beste herri-administrazio batzuk.

Datuak jasotzeko prozedura: Datuen igorpen elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalak.

Merkataritza informazioa.

Transakzioak.

e) Datuen lagapenak.

Osakidetza, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Eusko Legebiltzarra.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Osakidetzan kontu hartzea.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Osakidetzan kontu hartzea.

Araba kalea 45.

Vitoria-Gasteiz 01006.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

5.– Zerga Administrazioako Zuzendaritza.

5.1.– Zerga Koordinaziorako Organoaren argitalpenen banaketa-

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren argitalpenen banaketa: ZERGAK aldizkaria, Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratua eta unean uneko beste batzuk.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

ZERGAK aldizkariko harpidedunak eta kolaboratzaileak, bai eta Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratua jasotzen dutenak ere.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Interesatuak, herri-administrazioak, sarbide publikoko iturriak (hedabideak).

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak, Internet.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta aseguruak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Zerga Administrazioako Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Zerga Administrazioako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

5.2.– Euskadiko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren Dokumentazioaren Kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Prozedura ekonomiko administratiboari buruzko dokumentazioa erregistratu eta kudeatzea; dokumentuen sarrerak eta irteerak kontrolatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Auzitegian erreklamazioak aurkezten dituzten pertsonak fisikoak eta juridikoak.

Euskadiko arlo ekonomiko-administratiboa, eta espedienteak eta oro har dokumentuak bidaltzen dituzten organo administratiboak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, herri-administrazioak.

Datuak jasotzeko prozedura: Erreklamazio-inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta aseguruak.

Arau-hausteen inguruko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Zerga Administrazioarako Estatu Agentzia.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Zerga Administrazioako Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Zerga Administrazioako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Ertaina.

6.– Finantza Zuzendaritza.

6.1.– Aseguru-bitartekarien erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Jarduera merkantila aseguru pribatuetan egiten duten aseguru-bitartekarien, berraseguru-artekarien eta beren goi-kargudunen inskripzioa egitea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Euskal Autonomia Erkidegoan baizik ez aritzeko inskripzio administratiboa eskatzen duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: inprimakiak, dokumentazioa ematea.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Inguruabar sozialak ezagutzeko datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta asegurukoak.

e) Datuen lagapenak.

Aseguru-bitartekaritzarako elkargoei.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioari.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Finantza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Finantza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

6.2.– Aseguru-bitartekaritzaren diplomadunak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Aseguru-bitarkariei emandako diplomen erregistro historikoa.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Aseguru-bitartekarien diploma eskatutako pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Finantza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Finantza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

6.3.– Premiamendu-bideari jarritako errekurtsuak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Trafiko-zehapenengatik premiamendu-bidean aurkeztutako errekurtsuak erregistratu eta izapidetzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Premiamenduko prozeduretan errekurtsuak aurkeztutakoak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, herri-administrazioak (Trafikoa).

Datuak jasotzeko prozedura: Errekurtsuak jartzeko idazkiak eta zehapen-espedienteak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

e) Datuen lagapenak.

Estatuko Zerga Agentziari.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Finantza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Finantza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

6.4.– Abalak, kontsignazioak eta fidantzak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Emandako abalak eta fidantzak erregistratu eta kudeatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Euskadiko Administrazioan abalak edo fidantzak uzten dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inkestak edo elkarriketak, abalak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta aseguruak.

e) Datuen lagapenak.

Auzitegi eta epaitegiei.

Herri-administrazioari (aldundiak eta udalak).

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Finantza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Finantza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

6.5.– Euskadiko aurrezki-kutxen erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Aurrezki-kutxen erregistroa egitea, baldin eta sozietatearen helbidea Euskadin badute edo, hala ez bada, Euskadin bulegoak irekita badauzkate. Estatutuetan egindako aldaketak, xurgapenak, bat-egiteak, desgiteak eta likidazioak inskribatzea.

Euskadin sozietate-helbidea duten aurrezki-kutxetako goi-kargudunak erregistratzea lizentziatzen, kargutik kentzeak eta berrautatzeak inskribatzen dira.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Zehaztutako dokumentuak aurkezten dituztenak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: Aurkeztutako dokumentuak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Finantza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Finantza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

6.6.– Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen ordezkarien eta arduradunen zerrenda.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen ordezkariak eta arduradunak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Finantza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Finantza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

6.7.– Premiamendu-bidea.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Premiamendu-bidez kobratutakoak kudeatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Premiamendu-bidera iristen diren pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: interesatuak.

Datuak jasotzeko prozedura: Bestelakoak: Aplikazio informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta aseguruak.

Arau-hausteen inguruko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Foru-ogasunei eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Finantza Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Finantza Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Ertaina.

7.– Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza

7.1.– Sozietate publikoen inbentarioa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Eusko Jaurlaritza titular bakarra duten sozietateen eratzea eta desegitea, beren kudeaketa– eta administrazio-organoen osaera, eta dituzten kapital-aldaketak erregistratu eta kontrolatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Sozietateetako kudeaketa– eta administrazio-organotako kideak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, erregistro publikoak.

Datuak jasotzeko prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

7.2.– Kontratisten Erregistro Ofiziala.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Lizitazaileen lehia erraztea eta kontratazio publikoko espedienteak izapidetzen laguntzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Sektore publikoarekin kontratuak dituzten enpresetako ahalordedunak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, herri-administrazioak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak, igorpen elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

7.3.– Kontratuen erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Kontratu publikoen informazioa jakinaraztea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Sektore publikoarekin kontratatzen duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: herri-administrazioak.

Datuak jasotzeko prozedura: igorpen elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

e) Datuen lagapenak.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

Eusko Legebiltzarra.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

7.4.– Enpresen sailkapena.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Enpresen kaudimen tekniko, profesional eta ekonomiko-finantzarioa aztertzea, kontratista-sailkapen zehatza emanez, Administrazioarekin obrak edo zerbitzuak kontratatu ahal izateko, kontratatu daitezkeen jarduerak eta beren muga ekonomikoa ezarri.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Sektore publikoarekin kontratuak dituzten enpresetako ahalordedunak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, herri-administrazioak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak, igorpen elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarritzkoa.

7.5.– Ondasun higiezinaren inbentarioa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jabetza, alokairu eta beste eskubide batzuetako ondasun higiezinak kudeatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Administrazioak alokairuan dituen higiezinaren edo jabetzakoak ez diren beste titulu batzuen jabeak, bai eta Administrazioaren higiezinaren errentariak ere.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: interesatuak.

Biltzeko prozedura: inkestak edo elkarrizketa, edo beste hauek: aurkeztutako dokumentazioa eta sinatutako kontratuak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Inguruabar sozialak ezagutzeko datuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak eta asegurukoak.

e) Datuen lagapenak.

Ez da halakorik antzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Oinarrizkoa.

7.6.– Kontratazio-espeditentak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari (Kontratazio Batzorde Nagusia) dagozkion kontratazio-espeditentak eta kontratu-gorabeherak kudeatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Lizitatuak edo beren ordezkariak edo ahalordedunak, bai eta kontratazio-mahaiko bokalak ere.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesatua edo bere lege-ordezkaria, beste administrazio batzuk, auzitegiak.

Datuak jasotzeko prozedura: beste batzuk: aurkeztutako dokumentazioa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Arau-hausteen inguruko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Kontratazio-prozeduran interesatuta egon daitekeen edozeini, sektore publikoaren kontratuei buruzko legeriaren xedapenak betez.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Ertaina.

7.7.– Administrazioak sinatutako aseguru-polizen kudeaketan erreklamatzeari.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sinatutako polizen kontratazioa kudeatzea, bai eta poliza horiek direla-eta gertatzen diren ezbeharrak eta erreklamazioak ebatzea ere.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Pertsona aseguratuak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari langileak, Administrazioari erreklamazioa aurkeztutako norbanakoak, eta Administrazioak sustatutako hitzarmenak edo programak bete behar dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesatuak, herri-administrazioak (Osakidetza).

Datuak jasotzeko prozedura: aurkeztutako dokumentuak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Ekonomiari eta finantzei buruzko datuak.

Arau-hausteen inguruko datuak.

Bereziki babestutako datuak.

e) Datuen lagapenak.

Osakidetza.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Altua.

8.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia.

8.1.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren espedienteak eta ebazpenak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren espedienteak eta administrazio-ebazpenak kudeatzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Interesatua eta bere legezko ordezkaria, afektatua ez den beste pertsona fisiko batzuk, jendeak eskura ditzakeen iturriak: hedabideak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona juridikoen legezko ordezkariak, abokatuak eta prokuradorea, instrukzioan edo espedientean dauden pertsona fisikoak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inkestak edo elkarrizketa, datuen igorpen elektronikoa / Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

Inguruabar sozialak ezagutzeko datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Datu komertzialak.

Transakzioei buruzko datuak.

Arau-hausteei buruzko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Lehiaren Estatuko Batzordea.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa.

Lehiaren Defentsarako Euskal Epaitegia.

g) Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzu edo unitatetara jo behar den.

Ekonomia eta Ogasun Saila.

Lehiaren Defentsarako Euskal Epaitegia.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Ertaina.

II. ERANSKINA

FITXATEGI SORTU BERRIAK

Agindu honen bidez sortutako datu pertsonalen fitxategiak (I. eranskinean duten zenbakiaren arabera zerrendatuta daude):

- 1.2.– Ekonomiari buruzko argitalpenen kolaboratzaileak.
- 1.4.– Ekonomia arloko ekimenei zabalkundea ematea.
- 1.5.– Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren espedienteak kudeatzea.
 - 4.1.– Osakidetzaren nominetan kontu hartzea.
 - 4.2.– Osakidetzaren esleipendunen kontu hartzea.
- 7.2.– Kontratisten Erregistro Ofiziala.
- 7.3.– Kontratuen erregistroa.
- 7.4.– Enpresen sailkapena.
- 8.1.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren espedienteak eta ebazpenak.

III. ERANSKINA

ALDATUTAKO FITXATEGIAK

Ekonomia eta Ogasun Sailaren datu pertsonalen zenbait fitxategi aldatzen dira, honako agindu hauetan jasota daudenak: Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioaren 2004ko martxoaren 2ko Agindua, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta sail horri atxikitako erakunde autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak arautzen dituen; agindu hori bigarren aldiz aldatzen duen Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioaren 2006ko ekainaren 27ko Agindua; eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2004ko urtarrilaren 8ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailean eta hari atxikitako erakunde autonomoan dauden izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak arautzen dituen.

Fitxategi bakoitzarentzat adierazita daude abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.1 artikuluan aipatutako aldaketak (errege-dekretu horren bidez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko arautegia onartu zen).

I. eranskineko zenbakien arabera zerrendatuta daude.

1.3.– FEDER fondoak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

FEDER finantzaketa duten EAEko kudeaketa-organoen exekuzioen kudeaketa-espeditenteei eta kontularitza- eta aurrekontu-datuei buruzko informazioa erregistratzea.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Administrazio publikoak.

Datuak jasotzeko prozedura: datuen igorpen elektronikoa, Internet.

3.2.– Europaren fondoak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Eusko Jaurlaritzak edota EAEko foru- edo toki-erakundeek kudeatutako edo garatutako egitura-fondoaren kontura Europako Erkidegoak finantzatutako eragiketei buruzko informazioa eskuratzea.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

EAEaren eremuko egitura-fondoak jaso dituzten pertsonak.

d) Fitxategiaren oinarritzako egitura.

Identifikazio-datuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak.

3.3.– Informaziorako eta kudeaketa ekonomiko eta kontularitza-kudeaketarako sistema.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zordunak eta hartzekodunak.

e) Datuen lagapenak.

Foru-ogasunei eta Estatuko Zerga Agentziari.

5.1.– Zerga Koordinaziorako Organoaren argitalpenen banaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren argitalpenen banaketa: ZERGAK aldizkaria, Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratua eta unean uneko beste batzuk.

5.2.– Euskadiko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren Dokumentazioaren Kudeaketa.

e) Datuen lagapenak.

Zerga Administrazioarako Estatu Agentzia.

6.1.– Aseguru-bitartekarien erregistroa (2004ko martxoaren 2ko Aginduan, izen hau du fitxategiak: Artekariak, artekaritza arloko sozietateak eta bertako goi-kargudunak).

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Jarduera merkantila aseguru pribatuetan egiten duten aseguru-bitartekarien, berraseguru-artekarien eta beren goi-kargudunen inskripzioa egitea.

e) Datuen lagapenak.

Aseguru-bitartekaritzarako elkargoei.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioari.

6.2.– Aseguru bitartekaritzako diploma duten pertsonak (2004ko martxoaren 2ko Aginduan, izen hau du fitxategiak: Aseguru-bitartekarien diplomak).

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Aseguru-bitarkariei emandako diplomen erregistro historikoa.

6.3.– Premiamendu-bideari jarritako errekurtsioak.

e) Datuen lagapenak.

Estatuko Zerga Agentziari.

6.4.– Abalak, kontsignazioak eta fidantzak.

e) Datuen lagapenak.

Auzitegi eta epaitegiei.

Herri-administrazioari (aldundiak eta udalak).

6.6.– Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen erregistroa.

d) Fitxategiaren oinarritzako egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

7.1.– Sozietate publikoen inbentarioa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

7.2.– Kontratisten Erregistro Ofiziala (2004ko martxoaren 2ko Aginduan, izen hau du fitxategiak: Kontratisten erregistroa eta enpresen sailkapena. Bi fitxategitan zatituta dago –ikus 7.4 puntua–).

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Lizitazaileen lehia erraztea eta kontratazio publikoko espedienteak izapidetzen laguntzea.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, herri-administrazioak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak, igorpen elektronikoa.

7.4.– Enpresen sailkapena (2004ko martxoaren 2ko Aginduan, izen hau du fitxategiak: Kontratisten erregistroa eta enpresen sailkapena. Bi fitxategitan zatituta dago –ikus 7,2 puntua–).

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Enpresen kaudimen tekniko, profesional eta ekonomiko-finantzarioa aztertzea, kontratista-sailkapen zehatza emanez, Administrazioarekin obrak edo zerbitzuak kontratatu ahal izateko, kontratatu daitezkeen jarduerak eta beren muga ekonomikoa ezarriz.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, herri-administrazioak.

Datuak jasotzeko prozedura: Inprimakiak, igorpen elektronikoa.

7.6.– Kontratazio-espedienteak (2004ko martxoaren 2ko Aginduan, izen hau du fitxategiak: Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako kontratazio-espedienteak).

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari (Kontratazio Batzorde Nagusia) dagozkion kontratazio-espedienteak eta kontratu-gorabeherak kudeatzea.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatua edo bere lege-ordezkarria, beste administrazio batzuk, auzitegiak.

Datuak jasotzeko prozedura: Beste batzuk: aurkeztutako dokumentazioa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Arau-hausteen inguruko datuak.

e) Datuen lagapenak.

Kontratazio-prozeduran interesatuta egon daitekeen edozeini, sektore publikoaren kontratuei buruzko legeriaren xedapenak betez.

h) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko segurtasun-maila.

Ertaina.

7.7.– Administrazioak sinatutako aseguru-polizen kudeaketan erreklamatzeari.

b) Zein pertsona edo talderen datuak jaso nahi diren.

Pertsona aseguratuak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari langileak, Administrazioari erreklamazioa aurkeztutako norbanakoak, eta Administrazioak sustatutako hitzarmenak edo programak bete behar dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:

Jatorria: Pertsona interesatuak, herri-administrazioak (Osakidetza).

Datuak jasotzeko prozedura: Aurkeztutako dokumentuak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura.

Identifikazio-datuak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

Datu akademikoak eta profesionalak.

Lanpostuaren inguruko datu zehatzak.

Ekonomiari eta finantzei buruzko datuak.

Arau-hausteen inguruko datuak.

Bereziki babestutako datuak.